

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA 2016KO ABUZTUA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %3,4 eta gaualdiak %4,3 gehitu ziren 2016ko abuztuan

Atzeritarren sarrerak gehitu gehien, %6,7

2016ko abuztuan, 333.043 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 10.890 gehiago, %3,4ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %4,9 gehitu dira Bizkaian eta Gipuzkoan %3,9; %1,9 jaitsi Araban.

Gaualdiak, 2016ko abuztuan, 729.025, aurreko urtekoan baino 30.128, %4,3, gehiago. Gaualdiak gehitu, urte batetik bestera, hiru lurraldeetan. Bizkaian %5,1, Araban %4,2, Gipuzkoan %3,4.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2016ko abuztua

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2016/08	m/m-12 (%)	2016/08	m/m-12 (%)	2016/08	2015/08	plazaka		gelaka	
							2016/08	p.p.*	2016/08	p.p.*
EUSKAL AE	729.025	4,3	333.043	3,4	2,19	2,17	79,0	0,7	85,1	1,4
Estatukoak	439.032	2,7	184.146	0,8	2,38	2,34	-	-	-	-
Atzeritarrak	289.993	6,9	148.897	6,7	1,95	1,94	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	101.702	4,2	53.692	-1,9	1,89	1,78	70,5	1,0	76,5	3,4
Estatukoak	69.082	2,5	31.488	-5,5	2,19	2,02	-	-	-	-
Atzeritarrak	32.620	7,9	22.204	3,6	1,47	1,41	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	71.949	1,1	37.466	-3,9	1,92	1,83	71,9	-1,1	80,0	2,7
BIZKAIA	342.776	5,1	157.748	4,9	2,17	2,17	78,5	1,4	85,2	1,4
Estatukoak	208.624	3,6	88.487	3,6	2,36	2,36	-	-	-	-
Atzeritarrak	134.152	7,6	69.261	6,6	1,94	1,92	-	-	-	-
Bilbao	208.676	5,9	99.407	7,8	2,10	2,14	83,4	1,6	89,4	1,1
GIPUZKOA	284.547	3,4	121.603	3,9	2,34	2,35	83,1	-0,2	88,3	0,4
Estatukoak	161.326	1,6	64.171	0,4	2,51	2,48	-	-	-	-
Atzeritarrak	123.221	5,9	57.432	8,1	2,15	2,19	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	157.071	3,0	64.357	2,6	2,44	2,43	87,8	-1,2	92,6	-0,9

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta


Estatuko bidaiariak %0,8 gehitu ziren erkidegoan aurreko urteko abuztuaren aldean; atzerrikoak %6,7. Araban estatukoak %5,5 gutxitu dira eta atzeritarrak %3,6 gehitu. Bizkaian estatukoak %3,6 gehitu eta atzeritarrak %6,6. Gipuzkoan estatukoak %0,4 gehitu, atzeritarrak %8,1.

Batez besteko egonaldia, abuztuan, 2,19 egun, 2015ekoan 2,17 zelarik. Araban lehengo urteko 1,78 egunetik aurtengo 1,89ra luzatu; Bizkaian 2,17, lehengo urtean bezalaxe; Gipuzkoan 2,35etik 2,34ra laburtu.

Plazakako betetze-maila ehuneko 0,7 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2015eko abuztuko %78,3tik aurtengo %79,0ra. Araban ehuneko 1,0 puntuz gehitu, %69,5etik %70,5era. Bizkaian

ehuneko 1,4 puntuz gehitu da, 2015eko abuztuko %77,1etik aurtengo %78,5era. Gipuzkoan ehuneko 0,2 puntuz gutxitu, 2015eko abuztuko %83,3tik aurtengo %83,1era.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Gelakako betetze-maila ehuneko 1,4 puntuz gehitu da Euskal AE osoan, %85,1era. Araban ehuneko 3,4 puntuz gehitu, %76,5era; Bizkaian 1,4z, %85,2ra; Gipuzkoan 0,4z, %88,3ra.

Hotel-okupaziorik handienak abuztuan Gipuzkoako kostaldean (%88,2), Donostian (%87,8), Bilbon (%83,4).

Asteko eguna aintzat, 2016ko abuztuan okupaziorik handiena, Euskal AE osoan, aste-bukaeretan, %83,8; %77,3 lanegunetan.

Hiriburuetakoa jaietako gelakako betetze-maila: %88,8 Gasteizen; %89,5 Bilbon; %95,8 Donostian

Gasteizen, 2016ko Andra Mari Zurienetan (abuztuaren 4tik 9ra), 7.844 sarrera eta 15.084 gaualdi; plazakako betetze-maila %77,5, gelakakoa %88,8. Sarrerak %5,8 gehitu eta gaualdiak %2,8 gutxitu 2015eko datuen aldean.

Donostian, 2016ko Aste Nagusian (abuztuaren 13tik 20ra, 8 gau), 16.937 sarrera eta 42.627 gualdi; gelakako betetze-maila %95,8, plazakakoa %92,2. 2015ekoaren aldean (abuztuaren 8tik 15era, 8 gau) Donostian sarrerak %2,8 gehitu dira eta gualdiak %3,0.

Bidaiari-sarrerak 2016ko Bilboko Aste Nagusian, 27.053. Sarrerok 2016ko abuztuaren 20tik 28ra (9 gau). 58.900 gualdi; plazakako betetze-maila %81,2, gelakakoa %89,5. 2015ekoaren aldean (abuztuaren 22-30 artean, 9 gau) sarrerak %10,5 gehitu eta gualdiak %9,0.

Landa-ostatueta bidaiari-sarrerak %6,8 gehitu, gualdiak %5,9, 2016ko abuztuan

Euskal AEko landa-ostatueta 24.522 bidaiari-sarrera erregistratu ziren aurtengo abuztuan, %6,8 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %37,2ko gehikuntza sarreretan, Bizkaian %2,2 Gipuzkoan %2,0. Atzeritarren sarreretan %15,5eko gehikuntza aurreko urtekoen aldean; sarrera guztien %20,8. Estatuko bidaiarien sarrerak %4,8 gehitu.

Euskal AEko landa-establezimenduetan abuztuan 95.653 gualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %5,9ko gehikuntza. Araban %12,6ko gehikuntza; Bizkaian %8,0; Gipuzkoan %3,0.

Plazakako betetze-maila, %70,8, ehuneko 1,5 puntu gehiago 2015eko abuztuan baino. Araban ehuneko 0,8 puntu gehiago, betetze-maila %46,5. Bizkaian betetze-maila %73,7, ehuneko 3,5 puntu gehiago 2015eko abuztuaren aldean; Gipuzkoan 1,4 puntu gehiago, %79,7.

Bidaiariko batez besteko egonaldia laburtu egin da 2015eko abuztuaren aldean: duela urtebete 3,94 egun; azken honetan, 3,90.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2016ko abuztua

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2016/08	m/m-12 (%)	2016/08	m/m-12 (%)	2016/08	2015/08	2016/08	p.p.*
EUSKAL AE	95.653	5,9	24.522	6,8	3,90	3,94	70,8	1,5
Araba/Álava	13.266	12,6	4.285	37,2	3,10	3,77	46,5	0,8
Bizkaia	31.277	8,0	7.804	2,2	4,01	3,79	73,7	3,5
Gipuzkoa	51.110	3,0	12.433	2,0	4,11	4,07	79,7	1,4

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko datu-bankua